



Pertsona gorrek dituzten komunikazio eta lan-mugen inguruko erakusketa Tolosan

IKUSGAI ▶ Kultur Astean ikus daiteke aste osoan goiz eta arratsaldez

ARAZOAK ▶ Entzun ezin dutenen arazoak agertu nahi dizkiete beste pertsoneri

ASTEA ▶ Sentsibilizazio Astea bukatzeko, kongresoa izango da etzi ▶ 3



Hilerriko tasa berriak onartu ditu Alegiako Udalak

ALEGIA ▶ Hilerri berriko tasak onartu ditu Alegiako Udalak. Horma-hilobiak erabiltzea doakoa izango da, lurperatzeko lurrik ez dagoelako. 108 horma-hilobi eta 40 kolunbario daude. Bi kasuetan, hamar urteko kontzesioa izatea erabaki du Udalak. Beste hilerri zaharra hustutzen ari dira. OLAlA ESKITXABEL ▶ 7

ZURICH ASEGURUAK

MIGUEL LARRARTE PÉREZ
Tituludun Aseguru Artekaria

ETXEA • ISTRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES • ...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978

Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 TOLOSA • m.larrarte@euskaltel.net

• 2004ko maiatzaren 13-14-15 eta 16a • Ibarra •

<Ordutegia>
ireki 18:00tan
ostegunean 00:00ean
ostiralean 01:30ean
laruneguan 02:00ean
igandeetan 00:00ean

Egitzaia:
13:00etan sotoa inauguratzen
13:30etan "BAGELA & PRAGATI" show
14:00etan festa
15:00etan sotoa jokatzen
16:00etan sotoa jokatzen
18:00etan sotoa jokatzen

IBARRAKO
1. Garagardo Festa
Fiesta de la Cerveza

Musika
Jangela
2 karpa
Jaki tipikoak
Herriko DJ-ak
Kultur ekitaldiak
18 garagardo mota
Bidai eder baten zozketa

HITZAren harpidedunen artean egindako zozketan, 2 lagunentzako afariaren irabazle suertatu da:
Jaime Etxeberria Ugartemendia
BERASTEGI

TOLOSA ▶ ESTETIKA

LEIRE MONTES

Hogeita hamar urte pasatu dira Maite Jimenezek drogeria ireki zuenetik. Tarte horretan, baina, ez dira soilik urteak pasatu. Aldaketak ere bat baino gehiago izan dira. Azkena, aste honetan bertan: Maite Estetikako Zentru Integrala zabaldu du tolosarrak.

«Oinarrizkoarekin» ireki zuen denda, Leitza kalean, 1974ko maiatzean. «Xaboia, lisiba, bainu-txanoak eta horrelakoak saltzen nituen. Denda txikia zen, berritze lanak egin gabe zabaldu nuen. Laranja eta urdinez margotuta zegoela gogoratzen dut oraindik...», dio Jimenezek, irribarretsu.

Pixkanaka, ordea, negozioia behera zihoazela ikusita, aldatzea erabaki zuen. «Denda txikia izanik, gainera, aukerak ere eskasagoak ziren». Horrela, 1982. urtean —«maiatzean, ere bai; aldaketa guztiak maiatzean izan dira!»— eraberritze lanak egin zituen bertan. Eta lurri-denda itxura emateko aprobetxatu zuen. «Etorrizuari begirako aldaketa izan zen, beharrezkoa ikusten nuen. Eta ikastaroak egiten hasi nintzen. Lancaster izan zen nire lehen marka». Ofizioa jardunaldi eta ikastaroetan ikasi duela dio Jimenezek, eta egun asko gustatzen zaio estetikarekin lotuta dagoen guztia. «Gogo handia jarrita ikasten

Osasuntsu eta eder egoteko

Maite Estetikako Zentru Integrala zabaldu berri dute Errementari kalean



Maite Jimenez, aurrean; atzean, ezker-eskuin: Ainhoa Irazusta, Ana Etxaniz eta Eukene Cortes. LEIRE MONTES

da. Eta ulertzen zoazen heinean gehiago gustatzen zaizu».

Duela zazpi urte iritsi zen hurrengo aldaketa: lehengo lekutik —orain Amaia lantzeria dago— aldamera, orango tokira, aldatu zuen denda. Eta aste honetan izan da azkena: denda handitu eta gero, asteartean zabaldu zuen Jimenezek Maite Estetikako Zentru Integrala, eta martxan da jada.

Jimenez dendan ariko da lanean Arrate Iragorriekin batera. Eta estetika zentruaz, berriz, Ainhoa Irazusta, Eukene Cortes eta Ana Etxaniz arduratu dira. «Egun bezeroek nirekin duten harreman estua haiekin ere izatea nahi dut», dio Jimenezek.

Era guztietako tratamenduak jasoko ditu bezeroak Estetikako Zentru Integralean: solarium-a, presoterapia eta elitium izeneko teknikak, gorputzarentzako eta aurpegirako tratamendu zehatzak... Oraingoz, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, astelehenetik larunbatera —larunbatetan goizez soilik—. Baina eguerditan ere irekitzea gustatuko litzaieke: «Jendearen eta zentruaren martxaren arabera izango da guztia, baina gustatuko litzai-guke zerbiztu hori egun osoan eskaintzea». Zentrua aurrez aurre ezagutu nahi duenak Errementari kalera jo edo 943 67 03 38ra deitu besterik ez du.

ERA GUZTIETAKO TRATAMENDUAK ▶

Hainbat gelatan dago banaturik Maite Estetikako Zentru Integrala. Gela bakoitza tratamendu zehatz baterako dago egokiturik. Tresna guztiak beharrezkoak diren segurtasun neurriak pasatu dituztela eta legeak ezartzen dituen arauak betetzen dituztela azpimarratu dute zentrukoek.



Solarium-a. LEIRE MONTES

SOLARIUM-A

▶ Eusko Jaurilaritzak ezarri duen arautegi berri guztia betetzen du Maite Estetikako Zentru

Integralaren solarium-ak. Zentzu horretan, bezeroari konfiantza eta segurtasuna ematea lehenetsuna dela diote bertako teknikariek.



Komuna eta dutxa. LEIRE MONTES

PRESOTERAPIA GELA

▶ Izenak dioen bezala, presioaren bidez giharretan eragitean datza tratamendu honek. Jende askorentzat da egokia: likido-erretentzia dutenentzat, hankak hazita

dituztenentzat, kirolarientzat eta esfortzu handia egin dutenentzat... Lohiartzeko bat janzitza ematen da tratamendua. Baina ez dago bakarrik hankei zuzenduta, besoetarako ere da egokia. Bularretan ebakutza izan dutenentzat, adibidez, oso aproposa da; izan ere, askotan besoak hazi egiten dira, eta presoterapiaren bidez besoko hantura jaitsi egiten da eta mina sahiestu.



Presoterapia gela. LEIRE MONTES



Elitium gela. LEIRE MONTES

ELITIUM GELA

▶ Presoterapia tratamenduaren antza handia du, baino zabalagoa da, ez hain puntuala. Barrutik kanpora egiten du lan, eta giharretan eragiten du. Giharrek sendotu eta indartu egiten ditu; baita lasaitu ere. Norberaren gorputzari argazkia eta fitxa ateratzen dio, bakoitzari tratamendua egokitze, eta giharren bilakaera jarraitzen du.

Kirolarientzat oso egokia da. Bai elitium baita presoterapia tratamenduak ere edertasunarekin lotuta egoteaz gain, medikuntzarekin eta osasunarekin ere harreman zuzena dute.

TRATAMENDU ANITZETARAKO GELA

▶ Gela honetan aurpegiko tratamenduak, argizari epeleko depilazioa, manikurak, pedikurak, makilaje saioak... egingo dituzte. Zentruaren sarreran, besteak beste, makilatze eta manikura egiteko txokoa ere badago.



Balio anitzetarako gela. L. MONTES

GIZARTEA ▶

IRATXE ETXEBESTE

«Zenbat kostatzen zaion trenari etortzea! Atzerapena izango du, zerbitzua etengo zen... Bozgoragailutik abisatzen badute guk ez dugu jakingo». Horixe dio Kultur Etxeko hormetatik zintzilikatuta dagoen karteltxo batek. Beste batek, honakoa: «Zer pentsatuko dute atea bultzatzen ikusita! Hau lotsa! Baina nik ez dakit atariko atea ireki didaten ala ez, ez baitut entzuten; argiren bat balego!». Jarraian dagoenak hauxe esaten du: «Nola jakinaraziko diot medikuari gertatzen zaidana? Eta, berak ulertzen badit, nik lortuko al dut egin behar dudana ondo ulertzea?». Bada, zuzenean, itzultzailearen beharra aldarrikatzen duenik ere: «Unibertsitatean ikasi ahal izateko klasera joan eta liburuetatik ikasteaz gain zerbait gehiago behar dut. Ez dut ondo ulertzen irakasleak gelan dioena. Itzultzaile bat behar dut!».

Gaunditzen, Tolosaldeko eta Goierriko Gorren Elkarteak Gorren Komunitatearen I. Sentsibilizazio Astea dela-eta erakusketan jarritako mezuak dira horiek guztiak. Argazki baina alboan duela zintzilikatu dute mezuetakako bakoitza, entzule direnek pertsona gorrek eguneroko bizitzan dituzten oztupoen, mugen eta zailtasunen berri izan dezaten. Kultur Etxean izango da *Pertsona gorrek sufritzen dituzten komunikazio eta lan-mugak* erakusketa larunbata bitarte: 10:30-etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Sute bat dagoenean korrika irteten dute guztiak eraikinetik soinu-alarinak jo eta gero. Larrialdiren bat dagoenean 112 telefono zenbakira deitzen du jendeak, igogailua hondatu, eta bertan geratzen denak aski du alarmani eman eta zer gertatzen den azaltzearekin eta errepedean autoa matxuratuz gero badira larrialdi zutoinak telefono antzekoetatik arazoaren berri emateko... Entzule direnek oharkabean egiten dituzte halakoak, eta agian horrexegatik, ez dira konturatzen gorrek zer nolako oztupoak izan ditzaketen bateko eta beste arazoak konpontzeko.

Entzumenaren lekuan

Telefonoak jotzen duenean, beste gelan dauden haurrek negar egiten dutenean, atariko atea jotzen dutenean... Entzuleek entzuten duten soinu bakoitzeko argi bat ikusten dute gorrek. Edo ikusi beharko lukete. Izan ere, asko eta asko dira oraindik gorrentzat egokituta ez dauden lekuak. Horietako



Erakusketa jarri du Gaunditzen elkarteak Kultur Etxean. Argazkiak, mezuak, marrazkiak, aparatuak... bildu dituzte bertan. IRATXE ETXEBESTE

Entzun ezin dutenen arazoak ikusle eta entzuleek aditzeko

Erakusketa jarri du Gaunditzen elkarteak pertsona gorrek dituzten komunikazio eta lan-mugen inguruan; Kultur Etxean dago zabalik larunbat arratsaldea bitarte



Atariko atea ezin entzun. I. ETXEBESTE



Igogailuan harrapatuta, nola irten? I. ETXEBESTE



Filmak azpittitulatuta izan ezean... I. ETXEBESTE

askotan ez daude, gainera, zeinu hizkuntza menperatzen duten itzultzaileak: «Turismo bulego, udalsetxe, foru aldundi, INEM edo antzeko zerbitzuetara joatean gaizki pasatzen dugu ez digutelako ondo ulertzen. Itzultzaile zerbitzua eskaini beharko lukete leku horietan», adierazi dute Gaunditzen elkarteko kideek.

Telefonoz hitz egin ahal izateko, larrialdien berri emateko, iratzargailuak jotzen duenean erasatu ahal izateko... gorrek erabiltzen dituzten aparatuak

ere ikus daitezke erakusketan. Ordenagailu antzeko bati itsasten zaion telefonoa erabiltzen dute, adibidez, deiak egin ahal izateko. Mezuak idatziz bidaltzen dituzte, hori bai, eta hartzaileak ere halako aparatu bat behar du mezuak jasotzeko. Telefonoak edo atariko atea jotzen duela ohartzeko, berriz, argia erabiltzen dute; aparatu bat dute etxeko tresnekin konektatuta, eta horrek ematen die abisua. Hala ere, azken urteetan gehien erabiltzen duten tresna telefono mugikorra dela

diote elkarteko kideek, mezu bidez komunikatu ahal izatea «abantaila handia» dela-ko haien zat. Entzumenaren lekuan, ikusmena dute gorrek.

Argazkiekin eta mezuekin baina Tolosako ikastetxeetako ikasleek egindako marrazkiekin ere osatu dute Gaunditzen elkarteko erakusketa. 9-10 urte bitarteko haurrek *Pedroren ametsa* filma ikusi berri dute, eta Sentsibilizazio Astearekin lotutako marrazkiak egin dituzte: gorrak ikastolan zeinu hizkuntzaren bidez mintzatzen,

gizon bat telebistako albiste-giak idatzita ikusten, azpittitulatuta dauden filmak zinemari, pertsona gorrak lanean... Marrazkien parean dagoen karteletako batek hala dio, hain zuzen: «Guk ere lan egin dezakegu. Gaitasunik ez dugula uste duzu, ala? Gure zailtasun bakarra da ezin dugula entzun!».

Sentsibilizazio Asteari bukatu emateko kongresua egingo dute larunbatean Gaunditzen elkarteak antolatuta. Hirukide eskolan izango da, 09:30ak eta 19:00ak bitarte horretan.

ADUNA ▶ KULTURA

Mankomunitateak liburua kaleratu du Igerabideren eskutik

Testuak Juan Kruz Igerabidek idatzi ditu, marrazkiak Xabi Gonzalezenak dira eta azala Goenaga margolariak egin du



Arantxa Aburuza, Xabi Gonzalez, M. Anjeles Lazkano, Juan Kruz Igerabide eta Juan Luis Goenaga. G. AZKUE

JUAN KRUZ IGERABIDE ▶ IDAZLEA

«Oso normala izan behar luke haur literatura irakurtzea»

Aiztondoko lau haurren istorioa kontatu digu ipuin honetan Igerabidek, adunarra izanik ederki ezagutzen baititu bailarako sekretuak.

Liburu hau nori oparituko zenioke?

Batez ere Aiztondo bailarako biztanleengan dago pentsatuta, baina istorioa nahiko orokorra denez, edozein euskaldunentzat balio du. Azken batean, literatura egiten saiatu naiz eta hori orokor bihurtzen da.

Herri batetik bestera funikularra jarriko dute haurrek.


Hiri bateko haurrek ulertuko al du istoriaren funtsa?

Donostiakoak bai behintzat. Igeldoko funikularra hor dute. Baina bertako lekuak ezagutzen dituenak errazago identifikatuko ditu.

Heldu bat oparituko bazenio liburua, haserretzeko motiborik izango al luke?

Ez. Haur literaturako obra askorekin gozatu eta ikasi egiten dut. Oso normala izan behar luke bestelako literaturaz gain, haur literatura ere irakurtzea.

Ipuina irakurri dezaten go-



G. AZKUE

mendatuko zenieke Aiztondoko gurasoei, beraz.

Umeei irakurtzen hasten ari zarea gustatzen hasten zaizu. Haurrei irakurtzea aitzaki bezala jartzen dute guraso as-

GARAZI AZKUE

Aiztondoko mankomunitatea osatzen duten herrien arteko harremana eta elkarlana bultzatzeko asmoarekin eskatu zien Juan Kruz Igerabideri ipuin bat idatz zezan. Lau herri ezberdinetan jaiotako lau haurren istorioa kontatzen du; komunikazio bide berriak irekiko dituzte Aiztondon umeok. «Magia eta imaginazioa» erabili du Igerabidek.

Atzo aurkeztu zuten liburua Adunako udaletxean. Bertan ziren Zizurkilgo alkatea, Adunako alkatea, Larrailgo alkatea, Igerabide bera, liburuaren azalaren egilea Juan Luis Goenaga margolari alkizarra eta Xabi Gonzalez liburuaren ilustratzailea.

Igerabideren esanetan, «ipaina egiteko proposamena luzatu zidaten. Zaila egin zait, ipuinak gai librean egiten ohi-tuta bainago. Apustu berezia izan da hala ere. Beti saiatu naiz moralejetatik ihes egiten, beraz, literatura egin dut».

Liburuaren sarrera, Zizurkilgo bertso eskolako haurrek idatzitako bertsoek osatzen dute; eta amaiera, Jexux Mari Irazu bertsolariak eman dio liburuari.

Adunako Udalak, etxetz etxetan banatuko du ipuina.

VILLABONA ▶



lazko aipamena, Andu Lertxundiri. U. URREAGA

Beterriko Liburua'03 Aipamena egingo dute

Gaur 19:30ean jakinaraziko dute zein liburuk jasoko duen aurtengo izendapena

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, maiatzaren hasieran, 2003ko Beterriko Liburua Literatur Aipamena izango da Larramendi Bazkunak antolatuta.

Irakurleen proposamenak jaso ondoren, gaur plazaratuko dute zein liburuk jasoko duen aurtengo izendapena. Eta, 2003an argitaratutako liburuaren artean gogokoan izan dena sarituko dute.

19:30ean hasiko da ekitaldia Villabonako Gurea aretoan. Ekitaldiari, Juan Kruz Igerabidek eta Oihane Igerabidek emango diote hasiera, harpez lagundutako poesia errezitaldiarekin. Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariak, bertso bidez azalduko dute izendapena jasoko duen liburuaren berri.

Idazle saritua bertan izango da gaur, eta, hizketalditxo bat ere eskainiko du bertaritzen direnen aurrean. Horretaz gain, liburu sarituaren pasarte bat ere irakurriko dute bertan.

Iaz, Andu Lertxundik lortu zuen 2002ko Beterriko Liburua Literatur Aipamena, Zizurkilgen aurkeztu zuten sarria.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



HERNIALDE ▶ INGURUMENA

Proiektzioa Erniopeko IV. Ibilaldiaren aitzakian

Josu Iztuetaren 'Miloi bat kilometro lur azaletik' izango da ikusgai ostiralean



Autobusez mundu osoan miloi bat kilometro egin dute. HITZA

BIANDITZ IRAOLA

Datorren igandean, maiatzaren 9an, egingo da Erniopeko Zortzi Herrien IV. Ibilaldia, eta Hernialden hasi eta bukatuko da.

Horren aitzakian egitarau

zabala antolatu dute ostiralek hasita. Ostiralean bertan proiektio bat izango da, *Miloi bat kilometro lur azaletik* tituloduna. Josu Iztuetaren eskutik da, eta 20:30ean izango da. Kultur Etxean.

Larunbatean Hernialdeko

PR Gi-124 ibilaldia egingo da. 15:00etan abiatuko da herriko plazatik, printzipioz haur eta gazteentzat da, baina nahi duenak parte hartu dezake. Behar duen guztia ura ekartzeko da. Ibilaldiaren ondoren merienda bat izango da, Ernio-bide elkartearen.

Ibilaldiak, gainontzean, 50 kilometroko luzera du, eta zazpi besterik ez dira asfaltoan edo hormigoizko bideetan egin beharrekoak, gainontzeko 43etan naturaz bere osotasunean gozatu ahal izango da. Ibilbidearen iraupena, batzaz beste, hamaika ordukoa izango da eta igoera 2.400 metroko izango du.

Irteera 6:00etan

Lehen parte-hartzaileen irteera Hernialden, 6:00etan izango da. Izena emateko ordena errespetatuko da irteeraren, eta ibiltari bakoitzak ibilbidean zehar aurkituko dituen zortzi herrietan zigilua jarri beharko dion txartel bat jasoko du. Indarrak berri behar dituztenentzat lau hornidura puntu jarriko dira, jana eta edariarekin. Ibil-

dia amaitzean, 18:00ak inguruan, erregularren izan diren ibiltarientzat prestatu diren sariak banatuko dira.

Izen-ematea doanekoa da, eta ondorengo lekuetan egin daiteke: 943-697413 telefonora deitu daiteke, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; www.tolosaldea.net web orrialdean, edo Hernialdeko plazan bertan ibilaldiaren egunean, 5:00etatik probari hasiera eman bitartean, 6:00etan.

Erniopeko gurutzeko plakak dioen bezala, badira 57 urte gurutzeko eraiki zutela, eta nahiz eta geografikoki zortzi herri elkartzeko dituen —Asteasu, Alkiza, Larraul, Hernialde, Albiztur, Bidegoian, Aia eta Errezil— elementu fisikoak izan, ordurako jada auzolana existitzen zen, eta Erniopeko Kultur Elkartearen bitartez herri guzti horien elkargunea bilakatu zen.

Erniopeko gaina paregabeko ingurunean kokatuta dago, eta bertatik gozatu daitekeen paisaia azpimarragarria da. Eguraldi onarekin Gipuzkoa erdialdeko ibarrak dira ikusgai, bertako baso eta zelaiekin batera.

ANOETA-IRURA ▶ KIROLA

Xakean aritzeko aukera izango dute haurrek

LH1etik aurrerakoentzatko jokoak ezagutzeko jardunaldi bana egingo dira bi herriotan

B. IRAOLA

Hilaren bukaerarako bi jardunaldi prestatzen ari dira Irura eta Anoetan. Xakean ibiltzeko aukera izango da, eta LH1etik aurrerako haurrei zuzendua.

Maiatzaren 22an, Kultur Astearen barruan, Iruran izango da xakean jokatzeko aukera. 16:30etik 18:00etara izango da zita, udaletxean bertan. Parte hartu nahi duen guztiak agertzea besterik ez du, musutruk izango baita, eta begirale bat ere izango baita xakean jokatzeko erakusteko.

Ondoren, gainera, pailazoan emankizuna izango da, *Gaixotzea ez da txantxa* ikuskizuna eskainiko dute.

Maiatzaren 29an Anoetan aukera bera izango da. Ikastolan egingo dute jardunaldia, 16:30etik 18:00etara, eta Iruran bezala doakoa izango da, eta begirale bat izango da bertan. Ondoren merienda izango da.

Izena eman nahi duenak datorren astelehena, hilaren 10etik, 15era bitartean egin dezake, ikastolan edo bi herrietako udaletxeetan.

ANOETA ▶ AISIA

Eskualdeko domino txapelketa Alkartasunara

Rufino Iglesias eta Bernardo Borregok Beasainen jokatu dute hurrengo fasea

B. IRAOLA

Apirilaren 24ean jubilatuen mahai jokoen eskualdeko txapelketa jokatu ziren Urnietan. Anoetako elkarteak kideak hainbat kategoriatan parte hartu zuten, eta bitan finalera iristea lortu zuten.

Dominon Rufino Iglesias eta Bernardo Borrego Tolosako Aritzeko elkartearen kontra aritu ziren, eta irabaztea lortu zuten. Honenbestez txapel-dun geratu ziren, eta gaur Beasainen jokatu dute Gipuzkoako Txapelketara joateko

eskubidea emango dien txartelaren bila. Bestalde, tokan Anjel Brillo eta Fidel Benito finalera iritsi ziren, baina urnietarren kontra galdu egin zuten. Gainontzeko kategoriatan ez zuten zorte handirik izan anoetarrek, eta kaleratuak izan ziren.

Meza eskaintza

Alkartasuna elkarteak datorren igandean Telesforo Arregiren aldeko meza jarri behar zuten, baina atzeratu egin da, eta beranduago izango da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegia-Altzo-Amezket-**Abaltzisketa-Albiztur**. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03 (asteazkenak)

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarra-Belauntza-Berrobi

Gaztelu-Leaburu. Osasun

etxea: 67 24 11

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 46 11 11

▶ San Esteban, hitzordua

eskatzeko: 00 68 00

▶ Gernikako arbola, hitzordua

eskatzeko: 00 69 00

▶ Amaroizko dispensarioa:

67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Ur kontsorzioa: 902 30 22 22

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutzeko gorria: 943 67 48 88

▶ Ertzaintza: 943 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzuen

mankomunitatea: 69 39 30

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Taxia: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldiizkaria: 30 07 32

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK (Tolosa):

67 12 14

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant R., Zabalarreta 1, Tolosa. 943 67 38 49.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitateak. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33. tolosa@hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@hitza.info

Anoetaldia. 687 41 01 18.

anoetaldia@hitza.info

Ibarraldia. 687 41 00 32.

ibarraldia@hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@hitza.info

LEABURU ▶ AIZKORA

Arrospidek galdu egin du final-laurdenetako estraineko saioan

Igandean Urrezko Aizkolarietan jokaturako lehian, Donato Larretxeak bi minutu baino gehiagoko aldea atera zion



Anjel Arrospide leaburuarra, aurrez jokaturako txapelketa batean. TOLOSALDEKO HITZA

ERREDAKZIOA

Anjel Arrospidek ezin izan zuen menperatu Donato Larretxea igandean Idiazabalen jokaturako Banakako Urrezko Aizkolarien Lehiaketako proban. Final-laurdenetako ligaxkakako A multzoko lehen saioa izan zen igandekoa, eta aurkari latza izan zuen Arrospidek aurrean, hain zuzen, egungo txapeladuna. Larretxeak, sasoiko dagoela eta aurten ere txapela janzteko hautagai nagusia dela erakutsi zuen.

Arrospidek, txapelketan aurrera egin nahi badu, Midegiaren aurkako saioa irabazi behar du derrigor; galduz gero, finalerdietatik kanpo geratuko litzateke. Maiatzaren 9an jokatuko dute elkarren aurka

Arrospidek eta Midegiak, Urduñan.

Igandeko saioan, adituen pronostikoak bete zituen Aranzako aizkolariak. Hasieratik erritmo biziarekin aritu zen, eta lehenengo enborrean 13 segundoko aldea atera zion leaburuarrari. Pixkanaka-pixkanaka aldea areagotzen joan zen Larretxea, lehia ahalik lasterren erabakita utzi nahi baitzuen.

Ongi utsiz Larretxeari

Arrospidek, berriz, ongi utsi zion Larretxeari, eta ez zion alde egiten utzi. Lan erdian ia minutuko aldea ateratzen zion txapeldunak, eta bigarren itzulian, enborretik enborrera, aregotu egin zuen aldea. Enbor

IGANDEKO DENBORAK ▶

1. Donato Larretxea	29.07
2. Anjel Arrospide	31.18

handia pasatutakoan bi minututik gorako aldea zuen, eta saioa amaitzeko bi enbor falta ziren arren, lehia erabakita zegoen ordurako. Hamabi enborrak ebaki ondoren, nafarrak 2 minutu eta 11 segundoko aldea atera zion leaburuarrari.

Arrospideren iritzi, «Larretxeak guztion gainetik dagoela» erakutsi zuen Idiazabalen. Era berean, bere burua oraindik «besteen pare» ez zuela ikusten aipatu zuen. Lehiari dagokionez, epaietan ez zela «nahi bezala» aritu erantsi zuen.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Izaskunera irteera antolatu du Bizi-Nahik

Hilaren 19an izango da; izena-ematea elkarteko lokalean, 11:00etatik 13:00etara

ERREDAKZIOA

Bizi-Nahi jubilatuen elkarteak Izaskunera irteera antolatu du maiatzaren 19rako. 09:30ean irtengo dira ibiltariak, eta hamaiketako bat egiteko aukera izango dute, antolatzaileek bokadiloak ipiniko baituzte eskura.

13:00etan meza eskainiko

da, eta ondoren, Izaskungo ja-tetxean bazkalduko dute. Bazkide guztiak daude gonbidatuta bertan parte harzeko. Musikak lagunduta, dantzan aritu ahal izango da. Txartelak elkarteko lokalean lortu daitezke, 11:00etatik 13:00etara. Autobus bat ere ipiniko da, Izaskunera oinez igotzeko aukerarik ez dutenez.

IBARRA ▶ INTERNETA

KZguneko ikastaroetan izen-ematea zabalik

Hilaren 31ean 'Euskal Herria ezagutu' izeneko mintegia eskainiko dute bertan



KZgunean, zenbait ibartar nabigatzen. TOLOSALDEKO HITZA

ERREDAKZIOA

Maiatzean KZgunean izango diren ikastaroetako izen-emate epea zabalik dago. Interneten nabigatzen ikasteko bi ikastaro mota izango dira: 10 ordukoa, hilaren 17tik 21era 18:00etatik 20:00etara, eta 20 ordukoa, maiatzaren 17tik 28ra 16:00etatik 18:00etara.

Hilaren 31ean *Euskal Nekazari Mundua* izeneko mintegia

eskainiko da. Bertan Euskal Herriko baserri-bizimodua bere erakunde, produktu eta ustiapenen bidez ezagutu, azokarik garrantzitsuenak aurkitu eta oinarritzko arloa ondo ezagutzeko beharrezko diren hainbat helbide elektronikoko ezagutu ahal izango da.

Informazio gehiagorako KZgunera gerturatu, edo 943-670167 telefonora deitu 16:00etatik 20:00etara.

hilberriak ▶

eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 53 02 58 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Mertxe Iztueta Irarreta
ANDREA

Atzo hil zen, 42 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Mertxe, zuk emandako guztia gure artean geratuko da

Pello Errota herri ikastetxeko irakasle, ikasle, guraso eta langileak

ASTEASU, 2004ko maiatzaren 6a

www.tolosaldeko-hitza.info

@

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ALEGIA ▶ UDALA

Hilerriko tasa berriak onartu ditu Udalak

Horma-hilobietan sartzea doakoa da lurrean lurperatzeko lurrik ez dagoelako; hamar urteko kontzesioa dute hauek



Lurrean lurperatzeko lurrik ez dagoenez, horma-hilobietan sartzen dituzte gorpuak. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Hilerriko berriak lurrean lurperatzeko lekuri ez dagoela ikusita, horma-hilobietan sartzen dituzte gorpuak. Hori dela eta, doakoa da horma-hilobietan lurperatzea.

108 horma-hilobi inguru daude. Udalak, horien kontzesioa, hamar urtekoa izatea erabaki du.

Horrek batera, kolunbarioen (norbanakoan hezurrak gordetzeko kaxak) tasak zehaztu zituzte. 40 kolunbario in-

guru daude hilerriko berriak eta kontzesioa horma-hilobien antzera, hamar urtekoa izango da. Urte horietatik 100 euroko kuota ordaindu beharko dute herritarrek.

Hilerriko zaharra hustutzean

1985ean hilerriko berriak egiteko lanak hasi ziren; bertan, lehenengo gorpua bi urte beranduago, 1987an, lurperatu zuten. Aurretik, herrian bertan aurkitzen den hilerriko lurperatzen ziren gorpuak.

Hilerriko zaharra hustutzean hasten direnean senideen esku geratuko da hezurra hobi komunean edota kolunbarioetan gorde erabakitzea. Hala ere, oraindik hustutzea nola eta noiz burutuko den zehaztu gabe dago: «Prozesu hori nola gauzatu den erabakitzeko dago», azaldu du zentzu horretan, Olatz Amundarainek, herriko alkateak. Aurrago, gauzak zehazten joan ahal, herritarrei jakinaraziko zaiela gaineratu du, era berean.

ALEGIA ▶

'Ariketa fisiko orekatuaren onurak' aztergai

Ariketa fisiko orekatuaren onurak titulupean hitzaldia izango da gaur Jubilatu Elkartearen Kutxa Fundazioak antolatuta; 16:30ean hasiko da. Bertan, batez ere adineko pertsonengan kirola egiteak egiten duen mesede azalduko dute. Hitzaldia hasi aurretik, Helduen Hezkuntza Iraunkorraren inguruko ikusentzumeneko eskainiko dute aurreko bileran ikusteko zailtasunak izan zituztela eta.

IKAZTEGIETA ▶

Zuatzara joateko izen-ematea bihar amaituko da

Zuatzako irlara (Araba) joango dira datorren asteburuan, maiatzaren 15 eta 16an, ikaztegiak. Irteera honetan parte hartu nahi dutenek bihar izango dute izena emateko azken eguna. Hogeita hamar urtetik gorako helduek 32 euro eta haur eta gazteek 25 ordaindu behar dituzte izena ematerakoan. Irteerarako lo zakua, uretako txankletak eta linterna eramatea gomendatu dute.

ORENDAIN ▶ GIZARTEA



Interes handia sortu zuen gaiak bertaratu zirengan. O.ESKIXABEL

Bizi-kalitate hobea lortzeko ohiturak

Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak titulupean hitzaldia izan zen Erretore Etxean; ongizate-maila eta bizi-kalitatea hobetzeko hainbat ohitura ezagutaraztea zen hitzaldiaren helburua. Elikadura egokiak, ariketa fisikoak, komunikazioak, burua trebatzeko... dituzten onurak aipatu zituzten. Jakinmin handia sortu zuen hitzaldiak; galdera eta kezka ugari agertu zizkion Mari Jose Garmendia hizlariari bertaratu zirenek.

MANDIO ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70m²ko ebexibizita salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Laskorain kalean ebexibizita ugari salgai, hiru gelakoak. 34.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremontari kalean apartamentuak bi logela eta logela bakarrekokoak. 2 logelakoak 26.500.000 pzt eta eta logela bakarrekokoak 23.500.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Foruen etorbidean aparteko

ebexibizita, garaje marrarekin, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Lurre auzoan ebe atxikia salgai, lorategia, terraza eta bimeñez hornitua. 76.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondeko Aldapan ebexibizita salgai, 90 m² kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebieten ebexibizita salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Trianguloan garaje marra. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako ebexibizita salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoak. 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Ebexibizita berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko ebexibizita salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Amezketak. Duplex berria igogailuarekin. 28.000.000. Mandio. 669 87 19 09.

Irura. Laskibar: Ebexibizita berriak eraikitzeak. Bi eta hiru logelakoak eta baita atxikiak ere. Mandio. 669 87 19 09.

Irura. 100 m²ko ebexibizita berria, duplexa. Garajea eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Zizurkil. Ebexibizita salgai, garajea, bokoa, baratzak. Bista zoragarriekin. 40.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Ebe atxikia 4 gelakoa eta 2 solairukoak. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa inguruan. Borda salgai. 4.000 m²ko terrenoarekin, zuhaitz inguratua. Bista ederrak. 669 87 19 09.

Aia. Azken ebexibizita. Ingurune naturalean

hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak garajearekin. 29.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Herrian berta, 96 m²ko ebexibizita eraiki berria, hiru logela, sukaldia, 46 m²ko terraza eta garajearekin. Mandio. 669 87 19 09.

Gaintza. Ebe bifamiliarrak eraikitzen ari dira. 39.800.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Gorriti. Ebe rustiko familiabakarrekokoak salgai, 4 gelakoak, 3 bainugela eta 100 m²ko bi solairukoak, 350 m²ko lur sailarekin. Mandio 669 87 19 09.

Corella. Ebe atxiki rustiko berriak, portbearekin, 2 logela, bainua eta sukaldetz hornitua. Berria. 1.000 m²ko terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.

Aro. Errioxan ebexibizita salgai, 75 m²

koa eta hiru gelakoa 16 milioi. Mandio. 669 87 19 09.

Gorriti. Ebexibizita eraikitzeko terrenoa salgai. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Ofizina salgai. Iparragirre kalean 75m²-koa, erabat kanpoaldera. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin, prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, sailhasbidea ondoan. Telefona: 669 87 19 09.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. *Ariketa fisiko orekatuaren onurak* hitzaldia Jubilatuta elkartean 16:30an. Aurretik, HHren inguruko ikus-entzunekoa.

Hernialde. Erniopeko IV. mendi martxa igandean 06:00etan plazatik. Izen-ematea bertan aurretik. Haurrentzat beste martxa laburragoa izango da.

Tolosaldea. Datorren igandean Senperen izango den Herri Urrats festarako autobusak antolatu dituzte Galtzaundi Euskara Taldeak eta Berrobiko Udala Kultur Batzordeak. Izen ostirala arte eman daiteke.

Tolosaldea. Herritarren Zerrenda osatzeko sinadurak ari dira jasotzen eskualdeko hainbat herritan. Bihar da azken eguna.

MUSIKA

Anoeta. UHNE kintetoa. Bihar 19:30ean udaletxean.

Tolosa. Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arabe. Bihar 22:30ean Bonberenean.

Tolosa. Javier Garaialde quintet. Bihar 23:30ean Fronton kafetegian.

Tolosa. Film laburrak eta Djak Elorri pub-ean bihar.

Tolosa. Laskorain, Txinxarri eta Oroih haur abesbatzak. Bihar 19:30ean Jesusen Alaben kaperan.

Dendak urez blai

TOLOSA ▶ Zumardi natur jardunaldien ekimenez, urari buruzko 24 argazki eta testu labur daude ikusgai herriko dendetako erakuslehoetan



JOXEMI SAIZAR

Tolosako kaleetan paseatuz, irudi freskagarriak ikus daitezke egun hauean 24 dendatan: Karlis, Klisk, Martin eta Richard argazki-dendak; Argizti, Bronte eta Harrotz optikak; Aranguren, Garazi, Malumbres, MM, Mujika, Orla, Oski gaztea, Roncal arropa dendak; Lirain eta Maite perfumeriak, Anadolu, Jashin, Kaiz, Ross, Aralar kirolak, Gorrotxategi eta Belloso dendetan. Angel Araujo, Asier Arrese eta Santiago Fabregasen argazkiak dira. Joaquin Araujo naturazalearen testuez lagunduta. CIT-TEEK antolatutako Zumardi natur jardunaldien barruan kokatzen da ekimena.



ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Jose eta Kontxi (Anoeta). Gaur urrezko ezteiak dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Iosu Arregi (Izaskun). Gaur 3 urte. Zorionak ebekoen partetik eta batez ere anaia Enekoen partetik.



URTE ASKOAN

Jose Manuel Aburuza (Bidania). Zorionak maitasunez ernazte eta seme-alaben partetik.



URTE ASKOAN

Ainhoa Zapirain (Berrobi). Gaur 17 urte. *La alegría de la huerta.* Afaria noizko? Lagunen partetik.

HITZA,
 zorion agurren
 tarteak

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
 ezkontzak, jaioberriak...
 zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri
 argazkia bi egun lehenago.
 Mila esker!